

SOBERAKINEKIN JOLASEAN

Irati Goikoetxea

Beasain, 14 urte

1

Bi makil(a) elkar gurutzatzeko
jarri dezagun arreta,
modu hon(e)tara gorputz sendo bat
egin baitaiteke eta,
estalki gisa kolore(e)tako
paper ta tela pusketa,
petit-suisse eta yogourt poteak
isatserako gordeta,
zati guztiak ongi uztartuz
osatu dugu KOMETA. (bis)

2

Bai mendietan bai hondartzetan
olgetarako gogoa,
hoge metroko soka helbide
haizearen baitan doa,
bere jolas ta mugimenduez
alaitzen digu giroa,
hodeien gisa astindu ditu
iparra eta hegoa,
norabidea eutsi ezinik
mozkorren antzera noa. (bis)

3

Kartoiarekin txiribilduaz
 sudur luze, konkortua,
 soinean jantziz amarena zen
 soineko beltz zarpatua,
 buru gainean kartulinazko
 kapel handi zulatua,
 erratz iletsu ta dotorea
 esku artean hartua,
 geure burua ipini dugu
 SORGINEZ mozorrotua. (bis)

4

Sasi gainetik laino azpitik
 malabada malabedi,
 Tolosaraino heltzeko zenbat
 salto, brinko ta komeri,
 erratz kirtena gogor astinduz
 sorginkeriz sorginkeri,
 beldurra sortuz elkartutako
 neska-mutil guztieri,
 nahiz ta mozorro bakarra izan
 gaur ditugu bi aurpegi. (bis)

5

Pinpon pilota gorri-gorria
 sudurrarekin batera,
 aitaren galtza petodunekin
 apaintzen saiatu gera,
 esku artean bozinatxo bat
 ta bi txindata gainera,

metro erdiko zapatazarrak
oinetan jarriz ostera,
oso dotore gelditu zaigu
TXIRIBITONEN antzera. (bis)

6

Zapata kaxak egiten dute
bagoien ordezkapena,
xaboi ontzien tapoiek berriz
gurpilei dagokiena,
gometxa hori, argiak jarriz
tunel beltzetan barrena,
esku artean gauzatuz gure
burmuinen irudimena,
berriro ere martxan ipini
dugu UROLAKO TRENA. (bis)

7

Ttukuttukupiiii gerria landuz
errei ugerren gainean,
sei kilometro orduerdiko
etenik gabe lanean,
pailazo jauna ilusioa
sortuz bere barrenean,
gizon, andere, heldu nahiz gazte
ezker eta eskuinean,
guztiontzako dago lekua
kerik gabeko trenean. (bis)

8

Sormena eta irudimena
amets berrien lokarri,
aisialdiak izan daitezen
asperduren gozagarri,
soberakinak berrerabiliz
gabiltza buru-belarri,
POTE-ROBOTA, PAILAZO ETA
TRENA gorpuztuaz sarri,
gure jolasa bilakatu da
Ama naturaren irri. (bis)

DOINUA: AITA IZENA
EZIZENA: AMALUR